
MARKINA-XEMEIN / Kalera irten du Herri Bibliotekak

NAGORE GOIEASKOETXEA

Markina-Xemeingo Herri Biblioteka kalera irten da. Ekimenak irakurtzeko zaletasuna bultzatu eta liburutegiak ematen dituen zerbitzuak sustatzea dauka helburu.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak antolatutako Irakurri kanpainari jarraituta irten da Herri Biblioteka kalera, eta horrela egingo du barikura arte. Aste guztian kalean egongo den arren, bihar ahalegin berezia egingo du. Eguenean asteroko azoka egongo denez, ahalegin berezia egin eta goizetik egongo da kalean. Horrela, bihar karpa jarriko dute liburutegiko arduradunek. Goizean udaletxe aurreko plazan egongo da, eta bertan liburutegiaren erabileraren berri emango dute.

Arratsaldean, ostera, Zelaian egongo dira liburutegiko arduradunak liburutegiaren gaineko informazio zabala ematen. Asmoa Herri Biblioteka ezagutzen ez dutenei ezagutzeko aukera ematea da eta baita irakurtzeko ohitura ez daukatenei irakurketaz jabetu eragitea. Beraz, batere irakurtzen ez dutenengana edo gutxi irakurtzen dutenengana ailegatzea da kanpainaren helburua.

Herri Bibliotekaren beharra herritarrei hurreratu eta ezagutzera emateko herriko hainbat gunetan jarri dituzte standak. Egunotan, gainera, eguraldiak eraginda, aterpean jarri behar izan dituzte. Astelehenean Plaza barripean jarri zituzten postuak eta atzo, berriz, Kontzakupean.

Kide asko

Gaur, bihar eta etzi eguraldiak lagunduz gero, Zelaiko zinburuetan, kiroldegi alboko zinburuetan eta Arkupean jarri nahi dituzte standak. Beste alde batetik, bihar goizean karpa izango dutenez, udaletxe aurreko plazan egongo dira.

Erakusleihoen ordutegia 16:30etik 20:00etara izango da egunero; bihar goizean 10:30-etik 13:00etara.

Asko dira Markina-Xemeinen Herri Biblioteka ezagutzen dutenak. Izan ere, 4.000 biztanle inguru duen herriko 1.000 bizilagun dira liburutegiko kideak eta liburutegia erabiltzen dutenak. Hilero 1.000 mailegu inguru egiten dira bibliotekan, eta batez bestekoa eginez gero, lau herritarretik batek erabiltzen du herri liburutegia.

Beste alde batetik, beste berezitasun bat ere badauka. Bertako fondoak izateagaz gainera 20.000ren bat unitate ditu, horietatik %15 CDak eta DVDak), herriko hainbat ikastetxe eta elkarteetako liburutegiak sare bakarrean batzen dabiltza. Bera Kruz Ikastolako liburutegia sare horretan dago, eta ikasturtea amaitu orduko Bekobenta herri eskolako liburutegiko material guztia sailkatuta eta txukunduta izatea espero dute. Ondoren,

hainbat kirol elkarte eta Lea-Artibai Amankomunazgoko liburutegien txanda izango da, eta horretan dabilta.

Markina-Xemeingo Herri Bibliotekak behar asko egiten du urte guztian irakurzaletasuna bultzatzeko. Momentu honetan aitagarrienetarikoa bat Cubako Bibliobuserako liburuak lortzeko kanpaina da, herririk herri liburuak utziz ibiliko dena. Nazioarteko Liburuaren Egunean eman zitzaion hasiera kanpainari, eta Cubara autobus bat liburuz gainezka bidali nahi da, Sierra Maestrara. Norbere etxeko liburuak eroanda edo liburuak erosteko diruagaz lagundu daiteke. Liburuak emateko epea maiatzaren 27an amaituko da.